

# Bada aski arrazoi birziklatzeko

Birziklatzeak onura handia egiten die ingurumenari, ekonomiari eta osasunari



Keinu txikiek ondorio handiak eka-  
rri ohi dituzte sarri askotan, eta  
birziklatzea izan daiteke horren adibi-  
derik onenetakoa. Keinu txiki eta erra-  
zekin, mesede ugari eta handiak egiten  
zaizkie ingurumenari, ekonomiari eta  
osasunari. Birziklatuz, murriztu egi-  
ten da zabortegietako kutsadura eta  
hondakin kopurua, eragotzi lehengai  
berriak eskuratu beharra, energia au-  
rrezten da eta klima-aldaketari aurre  
egiten zaio, produktu berriak sortzeko  
modua ematen du, lanpostu berdeei  
eusten laguntzen du eta bizitzak salba-  
tu ere egin ditzake. Bada aski arrazoi,  
beraz, birziklatzeko.

## 1 Murriztu egiten da zabortegietako kutsadura eta hondakin kopurua

Hondakinak –batzuk– arriskutsuak dira inolako kontrolik gabe naturaren gain botaz gero, kalte larria egin dakieke florari eta faunari, eta kutsatu egin daitezke ibaiak eta akuiferoak. Birziklatuta, aldiz, eragotzi egingo dugu hondakinak era horretan buka dezaten edo zabortegietara eramanez ditzaten, zeinak gero eta beteago baitaude. Horra datu bat: beirazko 3.000 botila birziklatuta, 1.000 kilo zabor sortzeari uzten zaio, eta % 20 murrizten da airearen kutsadura.

Hondakin organikoak, behar bezala be-  
reizita, konposta egiteko erabil daitezke,  
eta konposta ongarritarako baliatuz,  
saihestu egiten dira ongarririk industrial  
nitrogenatuak (ingurumenari kalte egin  
dio horien erabilera intentsiboak).

## 2 Eragotzi egiten da lehengai berriak eskuratu beharra

Hondakinak birziklatuz gero, ez da hainbeste lehengai eskuratu behar produktu berriak egiteko, birziklatu den hori bihurtzen baita lehengai:

- └ Beira erabilia urtu eta itxura berria emanda, % 93 aurrezten dira materialak.
- └ Paper birziklatuzko tona bakoitzeko, bost eta hamazazpi zuhaitz artean salbatzen dira, eta ur asko aurrezten da: 21.000 eta 50.000 litro artean.
- └ Bi tona plastiko birziklatuz tona bat petrolio aurrezten dute.
- └ Tona bat aluminio birziklatuta, lau tona bauxita erauzteari uzten zaio (mineral horretatik lortzen da metal hori).

## 3 Nola aurreztu energia eta nola aurre egin klima-aldaketari

Lehengai berriak erauzi, landu eta garraiatzeko prozesuek ere energia asko eskatzen dute, eta, gehienez, erregai fosiletatik lortzen da energia hori. Birziklatuz gero, energia gutxiago behar izaten da: beirazko botila bat birziklatzen den aldiro, 100 watt-eko bonbilla batek lau orduz behar lukeen argindarra kontsumitzeari uzten zaio.

Eta energia-kontsumoa murrizten duenez, klima-aldaketaren aurka egiteko ere balio du birziklatzea. Kilo bat paper birziklatuta, 900 kilo karbono dioxido (CO<sub>2</sub>) isurtzeari uzten zaio, eta horixe da, hain zuzen, berotegi-efektua eragiten duen gas nagusietako bat.

## 4 Produktu berriak sortzen dira

Hondakinak birziklatu eta hortik lortzen diren materialekin, produktu berriak egin daitezke. Plastikozko ontziekin poltsak, zuntzak, hiri-altzariak edo eraikuntza-materialak egiten dira; aluminioak eta altzairuak ontzi eta xafla berriak egiteko balio dute; paperak eta kartoiak, berriz, kaxa bihurtzen dira, edo egunkari, bilgarririk edo idazteko orri; eta beiratik botila eta objektu berriak lortzen dira.

Material birziklatuekin jatorrizko ontzia bezalakoak egin daitezke (beirarekin, adibidez) edo haiek zerikusirik ez duten produktuak. Freskagarri-latak, esaterako, autoen gurpil-uztaiak egiteko erabil daitezke, brick-ak zapata-kaxak egiteko, eta PET plastikorekin egindako botilak, jantzi polar bat egiteko.

## 5 Lanpostu 'berdeei' eusteko balio du

Birziklatze-sistemak ehunka laguni ematen die lana, eta horien ardura izaten da sistemak ongi funtziona dezan. Espainiako Estatuan, Ecodivrio eta Ecoembes erakundeek kudeatzen dituzte, hurrenez hurren, beira eta ontzi arin erabiliak. Irabazi asmorik gabeko erakundeak dira biak ere.

## 6 Bizitzak salba ditzake

Ospitaleetako larrialdi zerbitzuek izaten dituzten erabiltzaileen % 10 sendagaiak gaizki erabiltzeagatik joaten dira. Sendagai horiek birziklatzeko sistemak, beraz, herritarrek kontzientzia har dezaten balio behar du, tratamenduak ongi bete ditzaten eta beren kabuz botikarik har ez dezaten.

+ [www.consumer.es](http://www.consumer.es)



## EKOLOGIKOAGOAK IZATEKO AHOLKUAK

### Ekologiaren zazpi arau jarraitu

Gogoetatu egin behar da zerbait kontsumitu aurretik; baztertu produktu edo jarduera ez-ekologikoak ("erabili eta botatzekoak" edo bilgarri gehiegi daukatena); murriztu eta behar-beharrezko dena soilik erabili; berrerabili, produktuek bizi luzeagoa eduki dezaten; birziklatu, materialak aprobetxatu eta zabortegira joan ez daitezen; ondasunak birbanatu, desorekei aurre egiteko; eta enpresei eta erakundeei eskatu behar zaie ingurumenaren aldeko jarduerak susta ditzatela. Zazpi arau horiek ikasi eta abian jartzen dituztenek lagundu egiten dute ingurumena zaintzen, eta, bide batez, dirua aurrezten dute.

### Ibilgailu pribatua utzi eta garraiobide iraunkorrak erabili

Ibilgailu pribatua saihestea komeni da eta garraiobide publikoaren alde egitea edo ahalik eta gutxien kutsatzen duena hautatzea.

### Energia gutxiago gastatu

Energia dezente aurrezten da aire girotuari edo berogailuari gradu bat edo bi jaitsiz gero eta tresna elektrikoak pausaldian (stand-by) ez utzita.

### Ura modu eraginkorrean erabili.

Bainatu beharrean, bost minutuko dutxa bat har daitezke, arropak garbitzeko ur hotzeko programak erabil daitezke eta txorrotetako ur-ihesak saihestu.

### Etxean egindako produktu ekologikoak

Gure produktuak etxean eginda, dirua aurreztuko dugu, eta ekologiko-agoak eta osasungarriagoak izango dira, gainera.

### Papera aurreztu

Orriak bi aldeetatik erabil daitezke, fakturak formatu elektronikoan jaso eta paper birziklatua edo zigilu ekologikoa duena erabili.

### Turista ekologiko egin

Ez da komeni hegazkinean bide luzeak egitea eta oporlekura iritsita-koan ingurumenari kalte egingo dioten jokabideak edukitzea: ur gehiegi erabiltzea edo hondakin asko sortzea.

### Natura babestu, naturan bertan

Naturarekin gozatzea gauza ederra da, baina ingurua errespetatuz egin behar da hori.